

/ Nabarmentzekoak

- > Eskola Bidearen aste tematikoa (2. or.)
- > Hauteskondeek Muxikebarri eta RKEren programazioari eta zerbitzuei eragingo diete (3. or.)
- > 17 kirol campus Aste Santu honetarako (4. or.)



* "Burro", umorea, samurtasuna eta gogoeta Carlos Hipolitok protagonizatutako bakarrizketa batean (3. or.)

Solasaldia M8. Hilak 19 (asteartea), 18:30ean Fadura Kiroldegian. "Feminismoa hutsaltzen ari da?", Irantzu Varela eta Maria Gorosarriekin.

Kontzertua. Hilak 23 (larunbata), 21:00etan Muxikebarrin, Burning taldeak "Algo está ardiendo" aurkeztuko du. 15€.

A-
GENDA



GetxoBonoren edizio berria

Udalak abian jarri du GetxoBonoren kanpaina berria. Bertan, 16.070 deskontu-bonu trukatu daitezke (agortu arte), 5 euroko 3.520 eta 10 euroko 12.550. Aurten ostalaritzak ez du parte hartzen.

Berritasun gisa, ile-apaindegiek eta estetika-zentroek ezin izango dituzte beren bonoak zerbitzuekin trukatu, produktuekin besterik ez. Gainera, farmazietan ez da sendagaietarako erabiliko, eta estankotetan ez da tabakoa erosteko aplikatuko; halaber, optiketan ordainketak ez du balioko eskaerarako. Elikagai-marka handiak ere kanpoan geratuko dira. Salto-ki bakoitzak 1.000 euroko muga izango du.

Gainerako baldintzak mantendu egin dira aurreko edizioarekiko: pertsonako 5 euroko hiru deskontu-bonu eta 10 euroko hiru erabil ditzake gehienez; zuzenean aplikatuko dira erosketaren unean (ez dira aldeztu aurretik erosi behar); 5 euroko deskontu-bonua aplikatu ahal izango da 20 eurotik gorako erosketetan eta zenbateko horren multiploetan, eta 10 eurokoa 40 eurotik gorako erosketetan edo multiploetan. Erosketa bakoitzean 4 bonu pilatu ahal izango dira gehienez (adibidez: 80 euroko erosketa batean 10 euroko 2 deskontu-bonu edo 5 euroko deskontu-tuko 4 bonu aplika daitezke).

Saltokiek ez dute inoiz eskudirurik itzuliko.

40 entitatek eramango dute Korrikaren lekukoa ostegunean, hilaren 21ean, 11 kilometrotan zehar

Korrika, euskararen aldeko lasterketaren 23. edizioa ostegunean, martxoak 21, iritsiko da Getxora, eta hainbat erakunde eta herritarrek bat egingo dute herrian zehar-katuko dituen 11 kilometroetan zehar. AEK-k antolatuta, Euskal Herri osoko erakunde askoren laguntzarekin, tartean Udalarena, aurtengo edizioak, Harro herri lelopean, 2.700 kilometro egingo ditu, gelditu gabe, martxoaren 14tik 24ra, Irun eta Baiona artean.

Lasterketa 07:27ean sartuko da herrian, Salsidu etorbideko 70 zenbakitik. 1718. kilometroa izango da hori, eta bertatik, besteak beste, Ollarretxe, Maidagan, Aingeruaren etorbidea, Bidezabal, Sarrikobaso, Algortako etorbidea, Bolue, Villaondoeta, Iparbide, Makaletako Etorbidea, Gobelaurre, Zubie-



ta, Ama Mesedetakoa, Nagusi, Ibaiondo eta Kresaltxu kaleetatik ibiliko dira korrikalariak. 8:30ak aldera lasterketa Leioarantz abiatuko da, bere ibilbidea herrietatik, egunez eta gauez, jarraitzeko.

Aurrekoetan bezala, oraingoan

ere, udalerriko 40 bat kultur, kirol, gizarte eta gazte entitatek, hainbat enpresak, dantza taldek, abesbatzek, ikastetxek, alderdi politikoak, Udalak, familia elkartek eta abarrek eramango dute lekukoa altxatuta, euskararekiko konpromisoaren erakusgarri.

Pantaila erraldoiak ipiniko dira partidua ikusteko eta finalaren aurreko orduetan kirol askotako eta aisialdiko hainbat jarduera egingo dira

Romoko Santa Eugenia eta Algortako Geltokia plazek dardard egingo dute Athleticekin, Kopako finalaren egunean

Getxo Athletic egaz goiburupean, apirilaren 6an, larunbata, 18:00etatik aurrera, Romoko Santa Eugenia plazan eta Algortako Geltokia plazan kirol askotako eta aisialdiko jarduerak egingo dira,

Athletic Clubek eta RCD Mallorca taldeak jokatuko duten Errege Kopako finalaren aurreko orduak girotzeko. 2015ean bezala, bi plaza horietan pantaila erraldoiak ere ipiniko dira 22:00etan hasiko

den norgehiagoka zuzenean ikusi ahal izateko.

Partida aurreko jarduerak 18:00etatik 20:30era antolatuko dira eta honako hauek izango dira: puzgarria, mahai-tenisa, 3ko futboleko kantxa, Herri Kirolak gunea eta makillaje-eremua. Zumba klase bat ere eskainiko da. Jardueretako batzuek bertoko elkarte eta kirolkluben laguntza dute.

Eguraldi txarra izanez gero, ekitaldi guztiak eta partidaren emandialdia Gobela eta Fadura kiroldegietara eramango dira.

Garajeetara sartzeko afektazioak eta herritarren segurtasuna bermatzeko beste neurri batzuk behar bezala jakinaraziko dira.





MARTXOAK 14 OSTEGUNA

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Raul de la Fuente eta Damian Nenowen "Un día más con vida" pelikularen proiektzioa AJBn. Sarrera: 3,50€. 16 urtetik aurrera.

MARTXOAK 15 OSTIRALA

Ipuinak eta eskulanak. Bizikidetzarako liburutegiak zurekin kontatuz. 17:00 eta 18:00etan Romo Kultur Etxean eta 18:30 eta 19:30ean Algortako Kultur Etxean (Villamonte). Ele bitan. Izena emateko: www.getxo.eus/apuntazaitz Antolatzailea: Matiz elkarte.

Kontularien kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen bilera.

Antzerkia. 19:30ean, Muxikebarrin, "Bihar arte soilik" Erre Produksioaktaldeaekin (euskaraz). Sarrera: 8€.

Zine kluba. 21:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Alejandra Rojas eta Juan Sebastian Vasquezzen "Upon entry-La llegada" pelikularen proiektzioa AJBn. Sarrera: 3,50€. 7 urtetik aurrera.

MARTXOAK 16 LARUNBATA

Haur antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Coser y cantar" Teloncillo Teatrorrekin (gaztelaniaz). 6€.

Kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Alma latinoamericana" errezitaldia, Txus Romano (ahotsa), Júlia Weiss (gitarra) eta Leonardo Alonsorekin (gitarra eta ahotsa). Sarrera: 5€.

Kontzertua. 18:30ean, Algortako Kristo Erosle parrokiaren, Leioako San Juan Bautista Abesbatza, parrokiaren 50garren urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan.

MARTXOAK 17 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Robot dreams". Adin guztiak. Sarrera: 2,50€.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Calamity" (gaztelaniaz). Adin guztiak. 2,50€.

Antzerkia. 19:00etan, Muxikebarrin, "Burro", Carlos Hipólitoarekin (gaztelaniaz). Sarrera: 20€.

MARTXOAK 18 ASTELEHENA

Hitzaldia. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Mujeres conocidas y olvidadas de Getxo" (gaztelaniaz). Hizlaria: Enriqueta Sesmero Cutanda (Irakasle tutorea UNED-Bizkaian). Antolatzailea: Sinope Kultur Elkarte. <https://sinope-blog.wordpress.com/>

MARTXOAK 19 ASTEARTEA

Solasaldia M8. 18:30ean, Fadura Kiroldegian. "Feminismoa hutsaltzen ari da?", Irantzu Varela eta Maria Gorosarrerekin. Elebiduna, itzulpen zerbitzuarekin eta haurtzaindegiarekin. Doako sarrera. Udalak antolatuta.

MARTXOAK 20 ASTEAZKENA

Liburu aurkezpena. 19:00etan, Al-

gortako Kultur Etxean (Villamonte), "La apostasia de las putas" liburuarren aurkezpena, Gorka Mola egilearen eskutik.

Hitzaldia. 19:30ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Información sobre la ley del Sí es Sí". Hizlaria: Olga Macía (abokatua). Antolatzailea: Garapen pertsonal eta komunitariorako elkarte-Mugabarik.

Hitzaldia. 19:00etan, Urgull Zentroan (Algorta), "La corte internacional de Justicia, Israel y Palestina". Hizlaria: Joana Abrisketa (Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakaslea). Antolatzailea: EurGetxo elkarte. www.eurgetxo.wordpress.com

MARTXOAK 21 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Emakume paregabeak", Sorgina Pirulinarekin (euskaraz). 4-8 urte.

Literatura-solasaldia. 19:45ean, Algortako Kasinoan, Rosa Ribasen "Un asunto demasiado familiar" liburuarri buruz.

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Maria Elorzaren "A los libros y a las mujeres canto" pelikularen proiektzioa AJBn. Sarrera: 3,50€. Adin guztiak.

Antzerkia. 18:30ean, Martxoak 8 dela eta, Romoko San José parrokiaren, "Melocotón en almibar", Laberinto taldearekin. Antzolatzailea: Gizatiar-Romo Areetako emakumeen elkarte sozio-kulturala.

Iftar jai. Afaria komunitatean, Ramadanean, eguneko barauaren ondoren. Arrazakeria eta Xenofobiaren kontrako Eguna aldarrikatuko dute. 19:00etan, San Martin elizako txokoan (Villamonte, 23). Antolatzailea: Getxo Bizilagunak. Doako izenematea: getxobizilagunak@gmail.com, 622 433 085/655 603 809.

MARTXOAK 22 OSTIRALA

Ikuskizun musikala eta ikus-entzunezkoa. 21:00etan, Muxikebarrin, "Anonyme popular" (euskaraz) Igor Elortzaren bertsioekin, Rafa Ruedaren musikarekin eta Kulturazaren ikus-entzunezkoekin. Sarrera: 6€.

Zine kluba. 21:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Satyajit Rayren "Charulata, la esposa solitaria" pelikularen proiektzioa AJBn. Sarrera: 3,50€. Adin guztiak.

Kontzertua. 20:00etan, Romoko San José parrokiaren, "Requiem de G. Fauré", Ondarreta Abesbatzarekin eta Pedro Guallarrekin (organoa).

MARTXOAK 23 LARUNBATA

Haur antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Kutxartean" (euskaraz) Teatro Paraiso Antzerkiarekin. 6€.

Kontzertua. 21:00etan, Muxikebarrin, Burning taldeak "Algo está ardiendo" aurkeztuko du. Sarrera: 15€.

Kontzertu sakratua. 20:30ean, Loiolako San Ignacio parrokiaren, "Biotz Alai abesbatza"ren emanaldia.

Kontzertua. 18:30ean, Kristo Erosle parrokiaren, Zozoak (Getxo) eta Ars Viva (Bilbo) abesbatzen emanaldia.

Udaberriko kontzertuak. 20:15ean, Trinitarioen parrokiaren (San Martin kalea), Itxartu Abesbatza (Algorta), Seber Altube Korala (Gernika) eta Zamudioko Kamara Korala taldeen emanaldia.

"Isun zibikoa" kanpaina eta oinezko martxa bat barne hartzen ditu

Eskola Bidearen aste tematikoa

Eskola Bidearen egitasmoan parte hartzen duten Lehen Hezkuntzako ikasleek aste tematikoa egingo dute martxoaren 17tik 22ra. Aste horren ardatz nagusia *isun zibikoa*-ren kanpaina izango da eta bere helburua kaleetan zehar hiritarrek duten jokabidea aztertzea da. Horrela, ikasleek ikastetxearen inguruko zonaldeak zeharkatuko dituzte, gainerrako oinezkoek bide-arauak errespetatzen dituzten ikusiteko, eta arau horietakoren bat hausten badute, ohar txiki bat (*isun zibikoa*) emanez jakinaraziko zaie.

Bestalde, igandean, hilaren 17an, eta aste tematikoari hasiera emateko, oinezko martxa bat egingo da Algortako Geltokia plazatik abiatuta,



10:30ean, hurrek etxetik irteeta eta beste lagun batzuen bila ibiltzea bezalako gauza natural bat berriro esperimentatzea laguntzeko eta errazteko. Martxak ibilbide zirkularra izango du, eta hirigunetik igaroko da, non pertsona askok beren egunerokoan aurkitzen dituzten oztopo arkitektonikoak ber-

tatik bertara bizi ahal izango dituzte. Horretarako, Haszten kirol egokitu inklusiboaren elkartearen laguntza izango dute.

Martxan parte hartzeko, alde urretik izena eman behar da: 688 883 596 edo info@ingurumenaretoage-txo.eus

"Xakea" horma-irudiaren fatxada konpontzeko eta berritzeko lanak

Areetako Geltokia plazaren ondoan dagoen Ibaigane kaleko 3. eta 5. zenbakietako eraikinaren fatxada, *Xakea* izeneko horma-irudia hartzen duen fatxada, konpontzeko eta horren estetika berritzeko lanak ari da egiten Udala. Higiezinaren jabeekin sinatutako kolaborazio hitzarmenaren ondorio dira lanok. Helburua da gaur egungo fatxada *horma-atal zuri* bihurtzea, horma-irudi berri bat margotzeko, Kultur Etxeak bultzatzen duen lehiaketara aurkeztuko diren proposamenen artean aukeratuko dena.



4.000 "txakur-txiza" botila oparituko dira

Getxoko 126 merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduk, Algortako Dendak, Getxoko Ostalaritza Elkarte-ASHOGE, GetxoEnpresa eta Romo Bizirik elkarteetako kideek, txakurren txiza garbitzeko 4.000 botila oparituko dituzte beren kargura maskotak dituzten bezeroen artean. Udaleko Ekonomia Sustapena Arloaren eta Ingurumen Unitatearen ekimena da, udalerriko sektoreko elkarteekin lankidetzan. Ekimenaren helburua, alde batetik, lorategietako eta bide publikoko gorotzak biltzeko betebeharraren berri ematea da, eta, bestetik, etxebizitzetako, merkataritzako eta hiri-altzarietako fatxadetan txakurren txizek sortzen dituzten arazoek berri ematea.

Datorren larunbatean, hilaren 23an, bisita gidatua egingo da gauez herriko naturgune interesgarrietako batera: Gorrondatxe-Azkorri hondartza.

Jardueraren hasieran, 19:00ak edo 19:30ak aldera, naturgune horren ezaugarriak, baliokak, mehatxuak eta kudeaketa azalduko dira. Ondoren, hondartzan bertan, eguneko azken orduan aktibo dauden fauna-espezietatik batzuk eta landaredia ezagutaraziko dira. Ilundu ondoren, eta linternekin laguntzarekin, gaueko fauna bilatu eta detektatuko da. Ahalegin horretan, apo lasterkaria (*Epidalea calamita*) izango da protagonista, eta haren ezaugarriak, bitxikeriak, kudeaketa eta abar azalduko dituzte. Ziurrenik, inguruan ohikoak diren beste anfibio- eta narrasti-espezietatik batzuk ere ikusi ahal izango dira ibilbidean zehar.

Eguraldia aintzat hartuta, arropa eta oinetako egokiak eramatea gomendatzen da, baita linterna bat ere. Jarduerak gauerdia arte iraungo du, gutxi gorabehera, eta helduentzat antolatuko den arren, 8 urtetik gorako haurrak ere joan ahal izango dira.

Parte hartzeko beharrezkoa da izena ematea ohiko helbidean: boluenatura@gmail.com

Biolentzia matxistaren biktimak diren emakumeak artatzeko Eusko Jaurlaritzaren telefono zenbakia: 900 840 111

STAFF

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizilagunentzako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza, Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Bassai Comunicación. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Mediapost. Gordailu legala: BI-388-87

Komunikazio zinegotzia: Mikel Erkoreka. Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Hauteskundeek Muxikebarri eta RKEren programazioari eta zerbitzuei eragingo diete

Datorren apirilaren 21ean egingo diren hauteskunde autonomikoek eragina izango dute Muxikebarri eta Romo Kultur Etxearen programazio eta zerbitzuetan, bi ekipamenduak hautesleku gisa erabiliko baitira. Hori dela eta, hainbat ikuskizun eta jarduera bertan behera geratuko dira, baina kasu gehienetan data berrietan birprogramatuko dira.

Muxikebarrin, apirilaren 20rako iragarrita zegoen *El inconveniente* antzezlanaren bertan behera geratuko da eta apirilaren 30erako programatuko da berriro. Haurrentzako *Bitels para bebés* ikuskizuna (apirilaren 21ean), berriz, azaroaren 3an izango da.

Apirilaren 18ko Zinemabarri eta Zinemaxiki zinema zikloetako *The Quiet Girl* eta *Ipuin herriko berriak filmak* ere bertan behera geratuko dira.

Ekainaren 23ra atzeratuko da Kristalezko Kioskoa zikloko Mississippi Queen taldearen kontzertua (apirilaren 21erako iragarria). Azkenik, apirilaren 19an, *Baginaren bakarrizketak* antzerki-muntaia mantenduko da (bai Hezkuntza Programaren goizeko saioa, bai 19:30ekoa).

Romo Kultur Etxea eta Liburu Azoka

Romo Kultur Etxean, apirilaren 18tik (osteguna) aurrera aurreikusitako areto-lagapenak bertan behera utziko dira (beste data batzuk esleituko dira, espazioen erabilgarritasunaren arabera), baita Kultur Etxeak antolatutako tailerrak ere (astebete iraungo dute, ekainaren lehenera arte, eta, beraz, ez da ikasgelarik galduko). *Cronodrama*-ren aurkezpena (apirilak 18) apirilaren 26ra atzeratuko da, eta Liburu Azoka, Algortako Geltokia plazan (apirilak 19-21), astebete beranduago egingo da, apirilaren 26tik 28ra.

Sarreraren itzulketa

El inconveniente eta *Bitels para bebés* ikuskizunetarako online erositako sarreraren itzulketa ezer ere egin gabe egingo zaie erosleei. Eskudirutan edo datafenez egindako erosketen kasuan, Muxikebarriko leihatilan eskatu ahal izango da itzulketa.



“Burro”, umorea, samurtasuna eta gogoeta Carlos Hipolitok protagonizatutako bakarrizketa batean

Carlos Hipolito estatuko antzerkigintzan aktorerik garrantzitsuenetako bat da eta Muxikebarrira itzuliko da. Igande honetan, hilaren 17an, 19:00etan, eszenatokia igoko da *Burro* antzeztera, istorioaren bidez gizakiaren eta animaliaaren arteko harremana aztertzen duen bakarrizketa eskaintzeko. Umorea, samurtasuna eta gogoeta uztartzen dituen tragiko-

media da.

Hipolitok maisutasunez antzeztzen du astoa, Fran García, Iballa Rodríguez eta Manuel Lavanderekin batera. Yayo Cáceresek zuzendu du obra eta sarreraren prezioa 20 eurokoa da.

“Bihar arte soilik”

Ostiralean, hilak 15, 19:30ean, Erre Produzioak taldeak euskaraz an-

tzeztuko du, Muxikebarrin baita ere, *Bihar arte soilik*, harreman irekiak eta sexualitatea ulertzeko modu berriei buruzko proiektua. Ikuspegi komiko batetik, baina sakontasunez eta emozio-angelua ahaztu gabe, harremanak ulertzeko moduaren aldaketei buruz eta bereziki gazte talde bati nola eragiten dioten hausnartzen saiatzen da. Sarrera: 8 euro.

“Coser y cantar”, haurrentzako ikuskizun multisentsoriala

Teloncillo Teatroyen *Coser y cantar* izeneko ikuskizuna, 2023an Max sarietarako izendatua, Muxikebarrin ikusi ahal izango da larunbat honetan, martxoak 16, 18:00etan. Sarrera 6 eurokoa da.

6 hilabetetik 5 urtera bitarteko haurrei eta haien familiei zuzenduta, gure



inguruko emakume ehuleei guztiei egindako omenaldi gisa sortutako proposamen multisentsoriala da. Poesia, musika eta objektuak dira hariz, artilez, oihalez, botoiz, hitzez, soinuez, musikaz eta abestiz betetako ikuskizun honen protagonista nagusiak.

“Alma latinoamericana” errezitaldia

Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan izango da larunbatean, hilak 16, 19:30ean, *Alma latinoamericana* izeneko errezitaldia. Txus Romanok (ahotsa), Júlia Weissek (gitarra) eta Leonardo Alonsok (gitarra eta ahotsa) bertan hartu-

ko dute parte. Hainbat generotan ibilbidea egingo dute (boleroa, chachacha, Peruko balsa, guarania, etab.), ahotsa eta gitarra protagonista dituzten moldaketa originalak egingez. Sarrera: 5 euro.

Joste Solidarioa

Joste solidarioaren tailerlean egindako haurrentzako arropen erakusketa eta salmenta izango da Romo Kultur Etxean martxoaren 21era arte, bertako Nagusien Etxean eginda, Getxo Lagunkoia programaren barruan. Ohi bezala, erakusketan txaketatxoak, prakak, soinekoak, mendigoizaleak, bufandak eta abar izango dira, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:30era, igandean izan ezik, itxita izango baita. Diru-bilketa ASPANOVAS minbizia duten Bizkaiko haur eta nerabeen gurasoen elkartearantz izango da.

Ana Aldaren erakusketa

Apirilaren 15era arte, Euskal Akuarelisten Elkarteko kide den Ana Aldaren margolanak ikusi ahal izango dira Algortako batzokian. Oraingo honetan, Bilboko itsasadarreko paisaiei buruzko formatu ertain eta handiko olio-pinturen aukeraketa bat da.



“Maguie y el amuleto mágico” liburua

Miren Tamayo idazle eta ilustratzaileak bere azken lana aurkeztu du, Algortako Kultur Etxean, Villamonten: *Maguie y el amuleto mágico*, 8 urtetik aurrerako umeentzako abentura eta fantasiako liburua, magiaren oinarri metafisikoak modu dibertigarri eta atseginean jorratzen dituena. Zelten eta druiden kulturaren inspiratuta, non naturaren indarrekin lotura sakona zegoen, fikziozko eleberri hau maisu espiritual handien antzinako ezagutzan oinarrituta dago. Orrialde bikoitzeko 14 ilustrazio ditu, karta sorta bat eta liburuaren historiari lotutako orakulu magiko bat.

17 kirol campus Aste Santu honetarako

Getxoko kirol-klubek 17 campus antolatu dituzte Aste Santurako, honako modalitate hauetan: gimnastika erritmikoa, saskibaloia, igeriketa, atletismoa, futbola, patinajea, xakea, kirol egokitu, patinen hockeya, arrauna, eskubaloia, txirrindularitza eta



bela.

Getxo Kirolak-ekin batera sustatutako ekimen honen helburu bikoitza da kirola eta aisialdi osasungarria sustatzea, baita Getxoko familiei lana eta denbora libre uztartzea erraztuko duten alternatibak eskaintzea ere.

ANTOLATZAILEA	PROGRAMA	ADINAK	EGUNAK ETA ORDUA	PREZIOA	KONTAKTUA
Getxo Gimnastika Kluba	Gimnasia erritmikoarekin loturiko jarduerak Faduran	6/14 urte	Martxoaren 25etik apirilaren 5era. 9:00-14:00	63/84€	E-mail: club_ritmica_getxo@hotmail.com Tel.: 685 545 032
	Psikomotrizitatea eta umeentzako jolasak Faduran	3/5 urte			
Getxo Saskibaloia Taldea	Saskibaloia Faduran	4/14 urte	Martxoaren 25etik apirilaren 5era. 8:30-14:30	35/165€	E-mail: campusgetxosaski@gmail.com Tel.: 657 773 523
Getxo Igeriketa Bolue Kirol Elkartea	Igeriketa, kirol anitza eta tailerrak Faduran	4/12 urte	Martxoaren 25etik apirilaren 5era. 8:30-14:30	75/160€	E-mail: info@getxoiw.com Web: www.getxoiw.com
Getxo Atletismoa	Atletismoa Faduran	6/14 urte	Martxoaren 25etik apirilaren 5era. 9:00-13:30	45/90€	E-mail: info@cagetxo.com Tel.: 688 698 882
Romo F.C.	Futbola Gobelan	5/13 urte	Martxoaren 25etik 27ra. 9:00-14:00	60€	Web: www.romofc.com Tel.: 657 268 606
Getxo Azkarrenak Irristaketa Kirol Kluba	Irristaketa linean eta multikirolak Gobelan	3/12 urte	Martxoaren 25etik apirilaren 5era. 8:30-14:30	35/165€	E-mail: campus@getxoazkarrenak.com Tel.: 662 940 436
Getxo Xake Kluba	Xakea erreminta pedagogiko eta sozializatzaile gisa Gobelan	4/16 urte	Martxoaren 25etik apirilaren 5era. Bi txanda: 8:30-13:30 15:00-18:00	42/210€	E-mail: kampusgetxoxake@gmail.com Tel.: 688 677 874
Getxo Futbola Fundazioa	Futbola Faduran	5/14 urte	Martxoaren 25etik apirilaren 5era. 9:00-14:00	80€	E-mail: campusgetxofutbola@gmail.com Tel.: 615 982 663 Web: www.getxo-futbola-futbol-eskola.com/campus
Haszten Elkartea	Campus inklusiboa eta egokitua	10/25 urte	Martxoaren 25etik apirilaren 5era. 9:00-14:00h	25/30€	E-mail: gorka.haszten@gmail.com Tel.: 747 404 358
Getxo Show Irristaketa Kluba	Irristaketa eta ingeleza Andra Marin	4/16 urte	Martxoaren 25etik apirilaren 5era. 8:30-13:30	25/210€	E-mail: info@cpsshowgetxo.com Tel.: 615 501 624
Getxo Irristan Kirol Kluba	Hockey patinak eta irristaketarako hastapena Faduran	4/12 urte	Martxoaren 25etik apirilaren 5era. 8:30-14:30	50/70€	E-mail: klub@getxoirristan.com Tel.: 670 733 824
Raspas Arraun	Arraun hastapena haur eta gazteentzako Areetako kaian	10/16 urte	Martxoaren 25etik apirilaren 5era. 9:00-13:30	75/160€	E-mail: rasparraun@gmail.com Tel.: 688 783 983
Romoko Eskubaloia Kluba	Eskubaloia Gobelan	8/14 urte	Martxoaren 25etik apirilaren 5era. 8:30-14:00	140€	E-mail: club.balonmano.romo@gmail.com Tel.: 669 163 245
Punta Galea Txirrindulari Elkartea	Txirrindularitza eta BTT Faduran	4/14 urte	Martxoaren 25etik apirilaren 5era. 8:30-14:30	140€	E-mail: prensapuntagalea@gmail.com Web: www.puntagalea.com Tel.: 674 995 470
Arenas Futbol Kluba	Futbola Gobelan	6/14 urte	Apirilaren 2tik 5era. 8:30-14:30	90€	E-mail: futbolbase@arenasclub.com Tel.: 671 546 276
Pakea Getxo Bela Eskola	Bela Kirol Portuan	6/20 urte	Martxoaren 25etik apirilaren 5era 9:30-14:00h	120/280€	E-mail: info@pakea.info Web: www.pakeagetxobelaeskola.com Tel.: 634 405 624



Etorki Mendi Trailen izena emateko epea zabalik

Etorki Mendi Trail mendi lasterketaren 3. ekitaldian izena emateko epea zabalik dago. Getxo Kirolakekin elkarlanean, Etorkizuna Mendi Taldeak antolatutako proba datorren maiatzaren 19an (igandea) egingo da Getxon. Lasterketaren helburu nagusia da bi-ohitura osasungarriak eragitea eta gizartean kirol hori sustatzea. Era berean, emakumeen kirola bultzatu nahi da eta ingurumenarekiko errespetua sustatu. Gainera, Etorkizuna M.T.k urtero kolaboratzen du kausa sozialekin. Probak bost lasterketa izango ditu guztira: 27 km-ko trail luzea, 12 km-ko trail laburra, 12 km-ko junior lasterketa, 2 km-ko Etorki Gazte lasterketa (8-14 urte bitartekoentzat) eta 1 km-ko Etorki Txiki lasterketa (7 urte arteko gaztetxoentzat). Lasterketen irteera modu mailakatuan egingo da Fadurako kiroldegitik, 9:00etatik aurrera.

Mendi lasterketa honi buruzko argibideak eta izena emateko: www.etorkimenditrail.com



June Tejada, zilarra ergometroan

June Tejada Tellez Raspas Arraun Elkarteko arraunlari gazteak beste domina bat gehitu dio duela gutxi jokatutako banku mugikorrekiko distantzia luzeko Euskadiko txapelketan lortutako urreari. Oraingo honetan, joan den asteburuan Katalunian egindako Espainiako Ergometro Txapelketan zilarrezko domina eskuratu du.